## Aita, Zu bizia. *Hitzak Graxi Solorzano*

Aita zu ikusezina (2)
Bihotzean, ixilean zaude gordea ;
Bihotzean, ixilean laguna.

Aita zu hunkiezina (2)
Igorri daukuzu maitez zure semea ;
Igorri daukuzu maitez bai Hitza.

Aita zu hurbilezina (2)
Jesusi esker ikusten dugu bidea
Jesusi esker ikusten argia.

Aita zu adiezina (2)
Apaleri, zuhurreri mintzatzen zira;
Apaleri, zuhurreri egia.

Aita baitzira Amodio (2)
Anaitasunez mundu hau dezagun bero;
Anaitasunez mundu hau zuri so.

## Gure ganat otoi zato Jauna

**Gure bihotz iluna**
**Berotzerat, sustatzerat berritz**
**Maitasunaren argiz**

Badakigu nola xumeekin usu bazinabiltzan
Emaguzu, umil ibil gaiten, gure urrats guzietan.

Badakigu bihotzez garbiak nola dohatsu diren
Emaguzu, garbi eta zuzen zu bezala izan gaiten.

Badakigu agertu duzula berri on ta ederra
Emaguzu, haren arabera ibiltzeko goi indarra.

## Eskerrik asko, Jauna.

Eskerrik asko, Jauna bihotz bihotzetik,
eskerrik asko, Jauna, orain eta beti.
1 –
Eskerrik asko, Jauna, gutan zaudelako
eta zure biziaz bizi garelako.
2 –
Zure hitzen gozotan, zu gure gidari,
ogi eta arnotan zu gure janari.
3 –
Erakutsi daukuzu zure maitasuna,
ta maitasun bidea den zuzentasuna.
4 –
Zu zaitugu artzaina, gu zure artalde,
gure bihotzak beti behartsuen alde.
5 –
Zure gisara, Jauna, gaitezen ibili,
Zure gisara, Jauna, on eginez beti.

## Zurekin Jauna. *Hebrear herrikoia*

Zuk bihotzean argi oi Jauna
So egiteko lagun urkoa.
Uste onean sor harremana
Iragar otoi zure arnasa.
**Gau eta egun zain nago zuri**
**Oi maitasun ta bake Iturri.**
**Apalen indar baitzare beti**
**Zurekin Jauna nahi dut bizi.**
Haiza beldurra, azkar fedea
Izaite denen itxaropena.
Zutan da Jauna askatasuna
Zorionaren bide zuzena.
**Gau eta egun zain nago zuri**
**Oi maitasun ta bake Iturri.**
**Apalen indar baitzare beti**
**Zurekin Jauna nahi dut bizi.**

# Barkamenaren ibilbidea

La confession, un beau cadeau que Dieu nous donne
et que nous allons découvrir !
Une rencontre avec Jésus qui veut nous purifier,
nous transformer, nous donner la joie de Dieu !

Kofesioa, Jainkoaren opari eder bat da. Elkarrekin ibiliko gira eta denen artean hobeki barnatuko dugu. Jesus gure laguna da, bihotza erreberritzeko, aldatzeko eta Jainkoaren zorionean bizitzeko!




Jainkoa maitasuna da
pages 4 à 7




Semea aitarenganik urruntzen da
pages 8 à 12




Gogoetatzen da
pages 13 à 16




Semea berriz itzuli zait
pages 17 à 20

# Jainkoa maitasuna da

**Le cœur de Dieu aime en pardonnant.** Dieu se penche sur notre misère, sur les blessures de notre cœur pour les guérir. C'est ce que l'on appelle la miséricorde, c'est comme le deuxième nom de l'Amour de Dieu.
Jésus nous fait découvrir cela en nous racontant une histoire : celle de l'enfant prodigue. Mais on pourrait aussi appeler cette parabole celle du **père plein de miséricorde.**



Gizon batek bi seme bazituen. Gazteenak aitari erran zion:
«Aita, emadazu dagokitan etxe-partea».
Eta aitak ontasunak partekatu ziozkaten.

Handik egun gutiren buruan, seme gazteenak, bere etxe-partea saldurik, urruneko lurralde baterat joan eta, aiserian biziz, bere ontasun guzia jan zuen.



## Seigneur, j'accueille ton pardon

© Fleurus-Mame

**R/ Seigneur,
j'accueille ton pardon ;
Donne-moi la force
de vivre dans l'amour.**

Je viens vers toi, tu me connais,
Tu sais de quoi chacun est fait.
C'est près de toi qu'on devient vrai,
Heureux le cœur qui sait aimer !

Je viens vers toi, tu me connais,
Je viens te dire mon regret.
C'est avec Toi qu'on peut changer,
Heureux les cœurs qui font la paix !

Je viens vers toi, je te connais.
Tu es plus grand que mon péché ;
C'est bien de Toi que vient la joie,
Heureux le cœur réconcilié !

SECLI G25-52

## Dans la joie

© Glorious

Je chanterai de tout cœur
Les merveilles de Jésus mon Seigneur
Il m'a ôté des ténèbres
Il m'a délivré de tout péché (bis)

**R/ Je suis dans la joie,
une joie immense !
Je suis dans l'allégresse,
car mon Dieu m'a libéré.
Je suis dans la joie,
une joie immense !
Je suis dans l'allégresse,
Car mon Dieu m'a libéré.**

Car mon Dieu est fidèle
Il ne m'abandonne jamais
Je n'ai plus rien à craindre
Car mon Dieu m'a libéré (bis)

# CHANTS

## Père, je suis ton enfant

© Editions de l'Emmanuel

**R/ Père, je suis ton enfant,**
**ton enfant bien-aimé.**
**Et je viens vers toi**
**me jeter dans tes bras.**

Comme un enfant,
dans les bras de sa mère,
je m'abandonne,
je m'abandonne à toi !

Dieu de pardon, d'amour
et de tendresse,
tu es lumière,
lumière dans ma vie !

SECLI EDIT21-95

## Je veux revenir vers Toi

© Éditions Musicales Studio S.M.

**R/ Je n'ai pas fait ce que tu aimes,**
**je suis parti si loin de Toi.**
**Je n'ai pas fait ce que tu aimes**
**mais je veux revenir vers Toi.**

Ma vie a parfois deux couleurs,
je ne sais pas toujours aimer.
Quand je suis loin de Toi Seigneur,
viens me chercher, me guider.

Je peux te choisir chaque instant,
décider de bien mieux aimer.
Mon cœur apprend tout doucement
comment je vais bâtir la paix.

SECLI 17195



Dena xahutu zuenean, gosete handia izan zen lurralde hartan eta gabeziaren senditzen hasi zen. Orduan, lurralde hartako gizon batenganat joan zen mutil, eta harek bere lurretarat igorri zuen zerrizain. Zerriek jaten zuten ezkurrez ase nahiko zukeen, bainan nehork ez zion emaiten.





Orduan, bere baitan sarturik, egin zuen: «Aitaren zenbat langilek nahiko jana baduten, eta ni hemen goseak hiltzen ari! Xutitu eta aitarenganat joanen naiz; erranen diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme izaitea merezi. Langiletzat har nezazu».



Xutitu eta aitarenganat joan zen. Urrun zela oraino, aitak ikusi zuen, eta urrikaldu zitzaion : lasterka joan eta lepotik harturik, besarkatu zuen.

Semeak erran zion: «Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme izaitea merezi...» Bainan aitak mutileri erran zioten: «Ekarrazue laster jantzirik ederrena eta emozue soinean, eraztuna erian eta oinetakoak zangoetan; ekarrazue aratxe gizena eta hil; dezagun jan eta besta egin: nere seme hau hila baitzen eta berriz bizi da, galdua baitzen eta aurkitua da».
Eta besta hasi zuten.

Luken Ebanjelioa, 15. kapitulua, bertsetak 11tik 24era.





# Kontrizionezko akta
# Urriki mina keinuen bidez



Mon Dieu,
**Jauna**

j'ai péché
**egin dut bekatu**



contre Toi
**zure kontra**

et contre mes frères.
**eta anaien kontra.**

Mais, près de Toi
**Bainan zu zira**

se trouve le pardon.
**barkatzaile.**



Accueille
**Beha**

mon repentir
**zenbat damu dutan**

et donne-moi la force
de vivre selon ton Amour.
**eta eman zuk nahi bezala, bizitzeko indarra**

5 - Zure lekurat joan aintzin, apezak aholkuak emanen dauzkitzu, zure giristinoaren bizian segi dezozun. Indar tiki bat galdeginen dautzu, gehiago maitatzeko, bizian handitzeko eta Jainkoaren lagun ona izateko. Hau, deitzen da penitentzia.

Haren aholkuak, haren erranak, segi itzazu.



Denbora labur bat har ezazu, Jauna eskertzeko, zure bekatuak barkatzen dituelako.

Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.

Jauna, nere Jainkoa, milesker ainitz: nere bekatuak barkatu dizkidazu eta maite nauzu.
Milesker elkarretaratze eder honentzat,
Milesker bakea eta zoriona berriz ekarri bait dituzu nere bihotzan. Zer poza zure haur maitea izatea!

Erraten dautzut : Gure Aita, zeruetan zarena...

Maria, Jainkoaren ama ona, lagun nezazu bihotz garbia atxikitzen, ongiaren bidea segitzen, Jesusekin bizitzen...
Agur Maria...

Aitaren, eta Semearen, eta Izpiritu Sainduaren izenean.



Parabola hortan, agertzen den  , bihotz handikoa, **J**ainkoa da, otoitzan deitzen duguna :

G . . . A . . .

eta  urrun joaten dena, amodioa errefusatzen duena, guretarik bakotxa da, ni naiz . . . . . . . . . . . . . , aitak goaitatzen duena, barkamena eskaintzeko.



# Semea Aitarenganik urruntzen da



Haur prodigoak bezala, gertatzen zauku hautu txarra egitea. Bekatuaren bidean gabiltza.

**Bainan, behar bada, zure baitan ari zira:**
Zer da bekatua?
Bibliak argitzen du hori:

"Nere Jainkoa...
bekatu egin dut,
zure begietan gaizki
dena egin dut."
Salmo 50

Apezak emanen dautzu orai Jainkoaren barkamena. Otoitz bat erraten du, zure bihotza bekatuetatik garbituko zautzuna.






## 1 Jar zaite apezaren ondoan



## 2 Apezari zure bekatuak erranen dizkiozu, sinpleki, xumeki

Jesus eta zuen bien arteko sekretu bat da, bainan ez beldur izan, apezak Jesusen leku hartzen du, dena erraten ahal diozu, beti atxikiko du sekretu hau, ez du nehori salatuko.

## 3 Gero, Jainkoari errateko damu duzula bekatuak eginik, otoitz bat erraten duzu:

«Mon Dieu, j'ai un très grand regret de vous avoir offensé parce que vous êtes infiniment bon, infiniment aimable et que le péché vous déplaît. Je prends la ferme résolution, avec le secours de votre sainte grâce de ne plus vous offenser et de faire pénitence.»

Jauna,
zure kontra eta anaien kontra
egin dut bekatu.
Bainan zu zira barkatzaile.
Beha zenbat damu dutan
eta eman zuk nahi bezala
bizitzeko indarra.

«Mon Dieu, j'ai péché contre Toi et contre mes frères. Mais, près de Toi se trouve le pardon. Accueille mon repentir et donne-moi la force de vivre selon ton Amour.»





Posible da jakitea zer den gaizki Jainkoaren begietan.
Jakin dezakegu zer den gaizki, tzarra eta bekatua gure bizietan.

Jainkoaren lagunek ongi badakite,
**3 opari** bait dauzkagu, Jainkoak emanik:



## 1 Lehen oparia:
# KONTZIENTZIA

Gure bihotzean, isilean, Jainkoa mintzo da. Jakinarazten dauku zer den ongi edo gaizki: hau da kontzentzia.
Gure barnean den boz ttiki batek dio:



### Argi berdea:

Segi, jarrai !
Jo aintzina !
ONGI da!

Hau da handiarazten nauena, Jainkoaren amodioaren baitan eta besteen artean.



### Argi gorria:

Geldi!
Kasu! Kontuz ibili!
GAIZKI da!

Hau da trabatzen nauena, ongi handitzetik trabatzen nauena. Hau da Jainkotik eta besteetatik urruntzen nauena.

**Haur bakotxari, nolako argia margo zinioke: berdea ala gorria?**











## 2 Bigarren oparia
# JAINKOAREN HITZA

Jainkoak maite gaitu. Beraz, erraten dauku zer den ongi eta zer den gaizki, aske eta zoriontsu bizi

Lot ezazu ainkoaren manamendua egokian den marrazkiari :
Jainkoaren legeak laguntzen gautu hautu egokiena egiten.

Jainkoa maitatuko duzu gainerako guztiaren gainetik. 1

Ez duzu Jainkoaren izena alferrik erabiliko. 2

Besta egunak saintuetsiko dituzu. 3

Aita eta ama ohoratuko dituzu. 4

Ez duzu erailko. 5

Ez duzu ekintza lizunik egingo. 6

Ez duzu lapurtuko, ez duzu ebatsiko. 7

Ez duzu testigantza faltsurik egingo, ez eta gezurrik esango ere. 8

Ez duzu pentsamendu edo ekintza lizunik onartuko. 9

Ez dituzu besteren ontasunak desiratuko. 10














# Nere semea berriz aurkitua da





Damu duzu gaizki eginik? Dolu zira? Kanbiatu nahi duzu, bihotza erreberritu? Bai?
Orduan, zure bihotza prest da barkamena sakramendu eder hunen errezebitzeko.




Egun guzietako bizian, jestu xinple batzuk ainitz derasate. Jainkoak sakramendu bat nahi ukan du, barkamena galdetzeko.
Jesusek, lurrean zelarik, erakutsi du barkatzeko ahala bazuela, bainan Jesusek nahi ukan du apostoluek eta apezek segi dezaten bekatuen barkatzen, Jainkoaren izenean. Kofesatzerat joanez, Jesusen gana joaten zira: entzuten zaitu, barkatzen zaitu.





3 Hirugarren oparia

# JESUSEN ETSENPLUA

Badakizu Jesus Jainkoaren Semea dela. Jainkoa da.
Jainkoa gizon egin da ikas dezagun maitatzen.
Ebanjelioetan ikusten dugu Jesus nola bizi zen,
nola portatzen zen.







Horrela, gure gaurko bizian, gure buruari galde ginezake:

Jesusek zer egingo zukeen nere lekuan balitz?

Aitak ematen daukun opraririk ederrena, Jesus da, bere Semea. Begira ezaiozu eta esker ezazu.
Zer amodio ederra!

"Jesus, nere bihotz zauritua sendatzeko, bekatutik salbatzeko, maitatu nauzu haraino! Milesker! Pizteaz, heriotzea garaitu duzu. Heriotzea eta bekatuaren aurka, irabazle zira,





# Kontzientziaren etsamina

**Galdera horiek pausa nezaioke nere buruari:**

1. Jesusek dio: « *Maita zazu Jauna, zure Jainkoa, bihotz guziaz.* »

*Nere otoitza egin ote dut, egun guziez?*
*Otoitz egiten dutalarik, erraten dutanari sinesten ote dut?*
*Igandeko mezarat joaten ote naiz? Gogotik?*
*Meza denboran, ongi portatzen naiz, Jainkoaren etxean xintxo ote naiz?*
*Konfiantza ote dut Jainkoaren baitan?*

2. Jesusek dio: « *Elkar maita ezazue.* »

**Gurasoekin, helduekin dituzun harremanetan*:***

*Obeditzen diezu? Helduek errana, egiten duzu?*
*Laguntzen dituzu?*
*Xintxoki mintzo zira? Errespetatzen dituzu zure hitzetan?*
*Egia erraten diezu?*
*Buru koxka ote zira (mutur,raldi jelosia, haserre, sumindura...)?*
*Irakasleak entzuten ditut eta errespetatzen?*

**Beste haurrekin dituzun harremanetan*:***

*Batzuetan penatzen ote ditut, nahitara: hitz larriak? kolpeak? trufak ?gaiztokeriak?*
*Hartzen ote dut nereak ez direnak (ohointza, ebasketa edo lapurketa)?*
*Nere buruari pentsatzen ote dut lehenik? (berekoikeria)*
*Xikanatzen ote dut jokoan edo lanean?*
*Min egiten dautatelarik, nola erantzuten dut? Mendekatzen naiz ?*

3. Jesusek nahi luke gure bihotza bere bihotzaren arabarakoa izan dadin: « *Hutsa gordeetarik, aska nezazu, ezin hobea izanen naiz.* »
*(Salmo 18)*

*Gauza batzuk gordezka egiten ditut bait dakit ez direla egin behar (telebista begiratu, bideoak interneten, besteen pusketan miatu)?*
*Indarrak egiten ditut eskolan ongi aritzeko, ongi entzuteko?*
*Gauz batzuk egiten ote ditut ederrak ez direnak, aitortu ez dituztanak?*
*Nere burua sentitzen ote dut, besteak baino handiago, espantuki ari naizea?*

***Zer da gehienik egiten dutan bekatua?***

# Examen de conscience

**Nous pouvons nous poser les questions suivantes:**

1. Jésus me dit: « *Tu aimeras le seigneur ton Dieu de tout ton coeur.* »

*Ai-je fait ma prière chaque jour ?*
*Est-ce que j'essaie de penser à ce que je dis quand je prie ?*
*Est-ce que je n'ai pas voulu aller à la messe le dimanche ?*
*Est-ce que je me tiens bien à l'église, qui est la maison de Dieu ?*
*Est-ce que j'ai confiance en Dieu ?*

2. Jésus me dit : « *Aimez-vous les uns les autres.* »

**Dans tes relations avec les parents et les adultes qui s'occupent de toi *:***

*Est-ce que je leur obéis toujours ?*
*Est-ce que je cherche à les aider ?*
*Est-ce que je leur parle gentiment ?*
*Est-ce que je leur dis la vérité ?*
*Est-ce que je fais la mauvaise tête (bouderie, jalousie, colère...)*
*Est-ce que j'écoute mes professeurs et les respecte ?*

**Dans tes relations avec les autres enfants*:***

*Est-ce que parfois je leur fais exprès de la peine : insultes ? coups ? moqueries ? Méchancetés ?*
*Est-ce que j'abîme ou prends ce qui n'est pas à moi (= vol) ?*
*Est-ce que je triche au jeu ou au travail ?*
*Qu'est-ce que je fais quand on me fait du mal ? M'arrive-t-il de me venger ?*

3. Jésus voudrait que ton cœur ressemble à son coeur:
« *De mes fautes cachées, purifie-moi Seigneur.* »
(Psaume 18)

*Est-ce que je fais des choses en cachette parce que je sais que ce n'est pas bien (regarder la télé ou des vidéos et aller sur internet sans permission, fouiller dans les affaires des autres...) ?*
*Est-ce que je fais des efforts pour travailler et écouter à l'école ?*
*Est-ce que fais ou dis des choses qui ne sont pas belles ?*
*Est-ce que je me crois meilleur que les autres, orgueilleux ?*

**Quel péché fais-je le plus souvent ?**



# Gogoetatzen da, pentsaketak egiten ditu.

Aitaren ontasun guziak xahutu ondoren, haur prodigoa bakarrik sentitzen da. orduan, pentsaketan ari da, gogoetak egiten ditu. Aitaren etxeaz oroitzen da eta egin zituen hautu makurretaz damutzen da.

Pentsatzen du berriz etxeratu behar duela. Garrantzitsua da, zuk ere, denbora pixka bat har dezozun zure hautueri, zure ekintzeri, zure biziari so bat egitea. Begira dezagun nola bizi garen.



## Nola egin?

Leku lasai eta kalme batean, jar zaite.

Galde ezaiozu Jesusi laguntza: bere bizia eman du, begiratzen zaitu amultsuki, maitasun handiz.

Zure bihotz barnean, begira ezazu: pentsatzen duzuna, erraten duzuna, egiten duzuna, gogoetak, hitzak, ekintzak...



Hau da **kontzientziaren etsamina** deitzen dena, ikertzen duzu zure barnekoa

14 eta 15 orrialdeko marrazkiek laguntzen ahal zaituzte edo 16 orrialdeko galdezketa.

Damien




Romain




Lucie




Marc




Antoine




Julie

